



OINARRIZKO BALIABIDEAK

Diru kapitala:

Oinarrizko baliabideak enpresa egiteko funtsezkoa diren baliabideak dira. Hau da, enpresa bat hasteko derrigorrez behar ditugun pausoak.

Gure produktua etxebizitza komunitarioak dira, non adinekoak eta gazteak elkarrekin biziko diren. Produktua saltzeko, gure xedea duten pertsonak erakartzea eta konbentzitzea da funtsezkoa. Horretarako, baldintza egokiak eskaintzen dizkiegu:

- **Gazteentzat:** etxebizitza prezio duinak, independizatu ahal izateko.
- **Adinekoentzat:** aisialdirako jarduerak eta jolasak, gazteen enpresa giroa ezagutzeko eta konpainia izateko aukera.

Bazkide bakoitzak ekarriko duen dirua:

Hurrengo pausoetan zehaztuko da, baina oinarrizko helburua da bazkide bakoitzak enpresan partaidetza ekonomiko bidez laguntzea, lehen etxebizitzaren erosketak, komunitatearen garapena eta jardueren antolaketa finantzatzeko.

Dirulaguntzak, mailegu bat bezala da baino gauza bat aldatzen da maileguetan dirua bueltatu behar duzu, dirulaguntzetan, berriz, ez da dirua bueltatu behar. Dirulaguntzak adibidez, bekak dira.

Mailegu-bankuak, hitzarmen baten bidez dirua uzten dizu. Hitzarmen horretan dirua bueltatu behar da derrigorrez eta akordio batera iritsi behar da interesekin eta itzultzeko epearekin. Etxebizitza bat erosteko adibidez bankuak mailegu bat uzten dizu eta zuk urte batzuk pasa eta bueltatu behar diozu diru hori %0,5 - %1,5 komisioarekin.